

Txikitto

2016ko urtarrila

157 zbk.

Mendilibar: primerako entrenatzailea



Taxis Leak



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

Jaimito amarekin trenean zegoen
bere herrira joateko eta esaten dio amari:

- Ama! Ama! Komuna okupatuta dago.

Eta amak:

- Ba leihotik egin kaka.

Jaimitok amak esandakoa egin eta esan zuen:

- Arraio! Herri honetan papera lijazkoa da!

Jaione eta Sandra



Jaimitok amari:

- Ama, ama! Aita gustatzen ez zaizkion gauzak
leihotik botatzen ari da!!

- Nondik?

- Leihotiiiiiiiiikkkk!!

Alex eta Haritz

Zoro batek beste bati:

- la ausartzen zaren argiraino
igotzen.

- Ausartuko nintzateke baina goian
nagoenean zuk itzali egingo duzu eta
jausi egingo naiz.

Unai eta Mohamed G.

Matematikako liburu
batek bere buruaz beste egin
zuen. Zergatik?
Problema asko zituelako.

Taxis Peak



Patxiku bere ikaskide batekin:

- Alazne, zu non jaio zinen?
- Gurasoen etxean. Eta zu?
- Ni? Ospitalean.
- Zer dela eta? Gaixorik zeuden ala?



Ume bat arduratuta heltzen da etxera eta esaten dio amari:

- Ama! Ama! Eskolan oso despistatua naizela esaten dute.
- Ez egin kasurik eta egon zaitez lasai. Baina barkatu, ni ez naiz zure ama, zure auzokoa naiz.



JAJAJA JAJAJA

ARIES (martxoak 21-apirilak 20)

IKASKETAK: lana, lana eta lana... AMODIOA: zenbat maite duzun... txora-txora eginda zaude. OSASUNA: Zergatik ez duzu orain itsasoan bainu bat hartzen? Kanpoan baino tenperatura epelagoa egiten du.

TAURUS (apirilak 21-maiatzak 21)

IKASKETAK: Aurten egin dituzun akatsetatik ikasi behar zenuke, datorren urtean ez errepikatzeko. AMODIO: Muxuek dana sendatzen dute. OSASUNA: Neguan nekeak jota ibiliko zara, goibel eta malenkoniatsu.

GEMINIS (maiatzak 22-ekainak 21)

IKASKETAK: Liburu bat oparitu dizutela? Badakizu horrek zer esan nahi duen. AMODIOA: Lorez lore bazabiltza, azkenean inork ez zaitu maite izango. OSASUNA: Beltzuneak besterik ez dituzu... kontuz ibili.

CANCER (ekainak 22-uztailak 22)

IKASKETAK: Kontuz mateko azterketetan, uste baino gogorragoak izango dira eta!!!! AMODIOA: Ez diozu ezer esaten... horrela ez da zugana hurbilduko. OSASUNA: Bitaminak hartu.

LEO (uztailak 23-abuztuak 23)

IKASKETA: Non dago koaderno? AMODIOA: Egin dizun hori keinua ote? OSASUNA: Kontuz okela jaten baduzu, okerreko zulotik joan dakizuke eta!!!

VIRGO (abuztuak 24-irailak 23)

IKASKETA: Eskolan lagun berri asko egin dituzu, ez zara hain bakarrik sentituko. AMODIOA: Gurasoak oso pozik daude zurekin, zure bizitzan aldaketa asko ikusten dutelako, horrela segi. OSASUNA: Marrazkiloa dirudizu hainbeste mokorekin...

LIBRA (irailak 24-urriak 23)

IKASKETA: Azken bolada honetan oso alferra egon zara eta zuk zure begiekin ikusi duzu ebaluazioa pikutara joan zaizula. AMODIOA: Irrifarre bat oparitu!! OSASUNA: Barre asko egitea osasungarria da.

SCORPIUS (urriak 24-azaroak 22)

IKASKETA: Liburuak ez dira mahaia eusteko eh... AMODIOA: Berri on bat jasoko duzu... OSASUNA: Kontuz ibili... orkatila bihurritu dezakezu.

SAGITARIUS (azaroak 23-abenduak 2)

IKASKETA: Ezin burutik kendu ikasitako abestia... AMODIOA: Pertsona interesgarria ezagutuko duzu maiteminduen egunean. OSASUNA: Zaindu zure atzazalak, oso esku politak dituzu eta.

CAPRICORNIUS (abenduak 22-urtarrilak 20)

IKASKETA: Galdu duzu hain gustokoa duzun liburua... arduratsuago izan. AMODIOA: Oso maitatua zara lagunaren artean, hori da zortea!! OSASUNA: Kirola egin behar duzu.

ACUARIUS (urtarrilak 21-otsailak 18)


IKASKETA: Buff zelako alperkeria... AMODIOA: Kontuz! Lagun taldean judas bat daukazu. OSASUNA: Hego-haizeak buruko mina eragingo dizu.

PISCIS (otsailak 19-martxoak 20)

IKASKETA: Nahiz eta irakurri hamar bider... ez duzu ulertzen... azaltzeko eskatu. AMODIOA: Bidaia batean maitasuna aurkituko duzu. OSASUNA: Oso ondo zaude.

Denborapasak

AURKITU 7 DESBERDINTASUNAK



JEISON A. MORA, NAROA GOMEZ, NAGORE OCHOA

Hizki-salda

Eguraldia

A	Z	T	I	A	K	E	D	A	T
U	A	A	X	L	F	E	U	X	U
S	R	E	Q	A	J	C	I	X	Z
T	R	Z	L	I	K	N	T	M	T
I	U	E	U	N	G	Q	R	F	I
E	L	H	D	O	R	Z	U	R	K
D	E	K	R	T	A	Q	M	E	Z
O	M	R	M	U	B	A	O	S	U
H	A	U	D	T	D	Q	I	K	G
S	A	R	R	A	O	I	A	O	E

arraoia
eguzkitzu
ekaitza
elurra
fresko
hezea
hodeitsu
lainotuta
trumoia
txingorra

DIOGO, DIYAE ETA GENESIS

Lehiaketa





AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Nahia Eguren** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Eibarko Udalak emandako Coliseorako sarrerak eraman ditu Nahia etxera. Zorionak!



7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK OTSAILAK 9 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**


Izen-abizena

Adina Tel.....

Denborapasak


LOTU ZENBAKIAK

UNAI, HASSNAIN, VERONICA



LABIRINTOA

EIDER, SALMA, JUAN



Jacinto Olabeko Ludotekan... ASPERTZEKO ASTIRIK EZ!

Ludoteka
Jacinto Olabe

Eibarko Astixak antolatzen duen Afariketari programa ezaguna egingo zaizue gehienoi. Orain, programa horren luzapen moduan, Ludoteka irekiko dute, urtarrilean, Jacinto Olaben.

5 eta 11 urte bitarteko umeek erabili ahal izango dute ludoteka, adinaren arabera bi taldetan banatuta: 5-7 urtekoak astelehenetik ostiralera joan daitezke 16:30etik 18:00etara, eta 8-11 urtekoak astelehenetik ostiralera 18:00etatik 19:30era. Izena ematerakoan aukeratuko duzue zein egunetan joatea nahi duzuen.

Sarrerari aipatu dugu Afariketari programaren jarraipena dela ludoteka, baina bertako arduradunek esan digutenez, umeak askeago egongo dira, hau da, programazioaren parte-hartzaile izango dira, nagusienak batik bat: "Umeak izango dira protagonista, euren nahiak, eskaerak, premiak... jasoko ditugu eta horren arabera joango gara programa osatzen", esan digu Astixako Asunek. Gaztetxoak euren iritziak ematera ohitzea nahi dute, egiten dutenaren parte senti daitezen, eta horrela, euren gustukoak diren gauzak egingo dituzte. Horrez gainera, lantaldean jarduten ere ikasiko dute.



Txikienek, 5-7 urte bitartekoek, txokoetan ibiliko dira. Denetarik egongo da, antzerkia, eskulanak, jolas sinbolikoak... eta horiek ere aldatzen joango dira, umeen eskaeren arabera.

Elkarrekin jolasak ere egingo dituzte, eta guzti horretan laguntzeko Enaitz eta Mikel begiraleak bertan izango dira, bertara zoazten ume eta gaztetxoekin ondo pasatzeko prest!

Informazio gehiago nahi izanez gero, Astixara deitu dezakezue: 943 20 62 31



IZENA

JOSE LUIS

ABIZENA

MENDILIBAR

JAIOTERRIA

ZALDIBAR

ADINA

54 urte (1961-03-14)

- **Itsasoa ala mendia?** Itsasoa.
- **Gozoa ala gazia?** Gozoa.
- **Uda ala negua?** Uda.
- **Zure ametsetako oporrak nora?** Lanzarotera.
- **Kolore bat?** Urdina.
- **Jatekorik gustukoena?** Okela.
- **Gutxien gustatzen zaizuna?** Babak.
- **Miresten duzun norbait?** Jabo Irureta futbol-entrenatzaile eta jokalaria ohia.
- **Ze 3 gauza eramango zenituzke irla desertu batera?** Familian lau garenez, laurak.
- **Futbola ez den beste kirol bat?** Pilota.
- **Eibar herritik gehien gustatzen zaizuna?** Giroa.

- **Eta gutxien?** Dena gustatzen zait. Askok diote Eibar zatarra dela baina niri ez zait zatarra iruditzen.
- **Definitu Eibarko zaletuak bi hitzetan.** Eibartarra izateak esan nahi duena: odol beroak eta gogorak.
- **Birziklatzen duzu?** Bai, seme-alabek gogorarazten didate.
- **Zelan dago gure euskera?** Eibarren egiten dena ondo egiten dela iruditzen zait.
- **Zer egin bultzatzeko?** Berba egin eta egin.
- **Zerk haserretzen zaitu?** Besteak baino gehiago direla uste duten pertsonak.
- **Zerk poztu?** Pertsona umil eta langileek.

- **Abesti bat?** Bruce Springsteen-en edozein.
- **Nolakoa da zure egun perfektua?** Goizean entrenatu, familiarekin bazkaldu, arratsaldean etxean lan pixka bat egin, eta gero, emaztearekin buelta bat ematera irtetea.
- **Irakurri duzun azken liburua?** La chica del tren.
- **Txistek kontatu ala entzun?** Ez dakit txistek kontatzen, oso txarra naiz, ja, ja, ja, beraz, nahiago entzutea.
- **Nola amaituko du denboraldia Eibarrek?** Ezin dut esan sailkapenean zein postutan amaituko dugun, baina nik uste dut denboraldia ondo amaituko dugula. Orain ondo gaude eta beherantz ez garela joango uste dut.

J. LUIS MENDILIBAR

Jose Luis Mendilibar Eibar Futbol Taldearen entrenatzailea da. Aurrez ere entrenatu zuen Eibarko taldea, 2004-2005 denboraldian. Eibarrez gain beste hainbat talde ere entrenatu ditu, besteak beste Osasuna, Levante edo Athletic, eta jokalaria moduan, Bilbao Athletic, Logroñes, Sestao Sport eta Lemona taldeetan jardun zuen erdilari.

URKIZU ikastetxean, abenduaren hasieran, Euskal Gorren Elkartekoen bisita jaso zuten 5. mailako ikasleek. Oso saio dibertigarria prestatu zieten eta oso ondo pasatu zuten. Gabonen aurretik, Encarni Genuak "Itsas-minez" txotxongilo-saioa erakutsi zien haur hezkuntzako eta lehenengo mailako ikasleei. Abenduaren 21ean Olentzeroren bisita jaso genuen. Opari asko ekarri zituen eta ikasleak oso gustora egon ziren. Abenduaren 22an Urkizuko irakasle eta ikasleak kalera irten ginen gabonetako kantak abestera.

Urte Berri on denoi **ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxetik! Atzean gelditu dira oporrak eta lanean murgilduta gaude jada. Oporrak hartu aurretik Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan genuen, eta eskolan hasi eta urtarrilaren 18an, Odol Emaileen tailerra izan dute LH-ko 5. mailako ikasleek. 6. mailakoak, urtarrilaren 20an, Itziora bisitan joango dira ikastetxea ezagutzera. Urtarrilaren 29an 3. ziklokoak antzerki bat ikustera joango dira San Andres eskolara. Ikusten duzuen moduan ekintza mordoxka ditugu hilabete honetan. Laster aratosteak izango ditugu, eta aurtengo gaia "Lanbideak" izango da.



Egun biribila ospatu genuen **ITURBURU**n abenduaren 23an. Alde batetik, azken eguna izanik, gabonetako oporrez gozatzeko astia izango genuelako; eta bestetik, maila guztiek jaialdi polita prestatu zutelako, denen aurrean egiteko: dantzak, bertsoak eta abestiak. Baina bukatzeko eta

ilusio gehien eman ziguna, batez ere txikitxoei, Olentzeroren bisita izan zen. Iturburuko guztiak irten ginen bidera Olentzerori harrera egitera, txalo eta abestiek. Zaku handian ekarri zituen gela guztientzako opariak. Pazientzia handiz erantzun zituen 1go eta 2. mailetako neska-mutilek eginiko galderi. Gora Olentzero eta hurrengora arte!

AMAÑA ikastetxean, abenduaren 22an, Olentzeroren eguna ospatu genuen. Goizean goiz etorri zen Olentzero txikienei opariak banatzera. Nahiz eta urduri egon, oso pozik hartu zuten eta gogotsu abestu zioten. Ikastetxeko nagusienak Ego Gaineko zaharren egoitzara joan ziren gabon-kantak abestera eta aiton-amonak alaitzera. Goiza, patioan, gurasoentzako gabon-kantak abestuz bukatu genuen.



Kaixo lagunak! Gabonetatik bueltan puztuta etorri garela eta, hemen dituzue abenduan **La Salle** ikastetxean egindako hainbat ekintza: 3an Euskararen Eguna ospatu genuen. Ikastetxe guztiak hartu zuen parte, gelaz-gela silueta bat banatu genuen eta bakoitzak bere sinadura jarri zuen. 6. mailakoek, goizean, Untzagan antolatutako Mintzodromoan jardun zuten. Arratsaldean Zumba saioa izan genuen eta gure silueteekin patioa apaindu genuen. Ederra izan zen sortutako giroa. Abenduaren 17an 4 urtekoak Olentzeroren etxera joan ziren egun pasa eta zoragarri pasatu zuten; euskal mitologia lantzeko aprobetxatu zuten eguna.

Amaitzeko, abenduaren 21ean, Gabonetako Jaialdia ospatu genuen eta urteari amaiera emateko gabon-kantak abestu genituen, musika-tresna eta guzti. Goizean Olentzero etorri zitzaigun bisitan eta berarekin egon, opariak eskatu, abesteko... aukera izan genuen.



ETXEKO ARTISTA

Birzikla ditzagun jogurt-ontziak

Zer iruditzen bazaizue oraingoan ere birziklatzen badugu? Etxean dugun ia edozer gauza birzikla dezakegu. Oraingoan jogurt-poteak erabiliko ditugu.

MATERIALA

- ✓ Jogurt-ontzi hutsak
- ✓ Koloretako orriak
- ✓ Artaziak eta itsasgarria barran
- ✓ Errotuladoreak
- ✓ Karrozari-zinta

Ti-ta!

Itsas-izarra

Oraingoan ere birziklatu egingo dugu, eta ti-ta batean itsas-izar polita egingo dugu. Arrautza-ontzia hartu eta hortik izarra moztuko dugu. Irudia ondo begiratu, egin beharreko ebakia ikusteko. Behin moztuta gustuko kolorearekin margotu. Ondo lehortu arte itxaron eta azkenik, pare bat begi mugikor itsatsi. Horiek emango diote azken ukitua.



PAUSOAK

- 1.- Hasteko, jogurt-ontziak karrozari-zintarekin estali, horrela sendagoak izango dira.
- 2.- Hemendik aurrera irudimena jarriko dugu martxan. Errotuladoreak atera eta... hasi margotzen!
- 3.- Ontziak loreontzi bezala erabiliko baditugu, oinarrian zulo txoak egin, landareak ureztatzean soberan dagoen ura bertatik irten dadin. Ontziak lurrarekin beteko ditugu. Haziak landa ditzakegu bertan: perrexila, erromeroa, albaka... Bestela errotuladoreak edo bestelako margoak gordetzeko ere erabil ditzakegu. Zuen esku!



SUKALDARITZA txokoa



LIMOIZKO MOUSSEA

OSAGIAK

- ✓ 150 gr azukre
- ✓ 20 gr gurin
- ✓ 20 gr arto-irin (maizena)
- ✓ 3 zuringo
- ✓ 3 gorringo
- ✓ Baso bete ur
- ✓ 2 limoi

PAUSOAK

- 1.- Nahastu 3 gorringoak azukrea, arto-irina eta urarekin. Arto-irina aurrez desegin ur pixkatekin.
- 2.- Gehitu limoi-zukua eta limoietako baten azal-birrindura.
- 3.- Su txikian berotu loditu arte. Moussea ondo irteteko ez utzi eragiteari.
- 4.- Irakiten hasten denean kendu sutik, gurina gehitu eta hozten utzi.
- 5.- Bitartean zuringoak harrotu eta nahastu limoi-kremarekin. Suabe eta kontuz eragin.
- 6.- Utzi hozkailuan hozten zerbitzatzeko unera arte.



FRUITU LEHOR BONBOIAK



Zuritutako fruitu lehorrak eta urtzeko txokolatea. Besterik ez duzue behar. Fruituak urtutako txokolatean sartu eta koilararekin harrapatu. Film gardenaren gainean jarri eta hozten eta gogortzen utzi (hozkailura sar daitezke). Ti-ta! Hor dituzue etxean egindako bonboi gozo-gozoak!

otsaileko agenda

Urtarrilak 30, zapatua

Koko-dantzak eta koko-eskea.
Goizez baserrietan eta
19:00etatik 21:00etara
erdiguneko kaleetan.



Otsailak 4, Eguen Zuri

15:30: Eskoletako taldeen kalejira.
17:00: Urkizutik Untzagaraino Jainaga eta
Narbaizarekin kalejira.
17:00: Dantzaldia Lisker taldearekin, Untzagan.
17:00-19:00: Tailerrak Untzagan: ipuinetako
pertsonaien kareta, makillajea eta osagarriak.

Otsailak 5, Aratoste Barixakua

20:00: Urkizutik hasita Untzagaraino Kaldereroen
kalejira.
20:30: Kaldereroen abestiak eta dantzak,
Untzagan.
21:00: Aratosteetako pregoia, Untzagan.

Otsailak 6, Aratoste Zapatua

12:00: Animazioa Aratosteetako karpan.
12.30-14:00: Untzagatik hasita Rockalean kalejira.
13:30: Aratosteetako kartel-lehiaketako sari-
banaketa.
17:00: Mozorro-lehiaketa, Galiziako Etxean.
18:00-21:00: Kalejira Ustekabe fanfarrearekin.
18:30-20:30: Umeentzako berbena Untzagako
karpan, Alaiki taldearekin.
19:00-21:00:
Untzagatik
hasita Brass
Band kalejira.



Otsailak 7, Aratoste Domeka

11:00: Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari
Bandaren eskutik.
17:00: Playback-lehiaketa LHko 5. eta 6. mailako
ikasleentzat, karpan.
Jarraian, A ze nolako banda parranda ikuskizuna.

Otsailak 9, Aratoste Martitzena

17:00-18:30: Umeentzako jolasak, Untzaga.
18:30: Sardinaren entieru txikia trikitalariekin.
18:30: Umeentzako diskoteka karpan, DJ
Arnorekin.

ZAPATUETAKO TAILERRAK

Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasle eta gurasoentzat:

“Decoupage teknika”.
3 talde: 10:00-11:30; 11:30-13:00; 17:00-18:30
Noiz: Otsailak 13, 20 eta 27
Non: Portalean
Izen-ematea: urtarrilaren 25etik 29ra eskoletan.

Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleentzat:

“Jostailuak egiten”.
2 talde: 16:30-18:00; 18:00-19:30
Noiz: Otsailak 13, 20 eta 27
Non: Portalean
Izen-ematea: urtarrilaren 25etik 29ra eskoletan.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat:

“Mugi-mugi” dantza garaikidea.
2 talde: 17:30-18:30; 18:30-19:30
Noiz: Otsailak 13, 20, 27 eta
martxoak 5
Non: Portalean, dantza-gelan.
Izen-ematea: urtarrilaren 25etik otsailaren 2ra
Pegoran.



Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat:


“Maketak, hasierako urratsak”
2 talde: 16:30-18:00; 18:00-19:30.
Noiz: Otsailak 13, 20 eta 27
Non: Portalean
Izen-ematea: urtarrilaren 25etik 29ra eskoletan.

Urtarrilak 30

ZAPATUKO IPUINA


“Aurorita beti polita”. 3 urtetik
gorako umeentzat. Umeen
liburutegian 18:00etan.
Aurorita munduan zehar
dabilen neska kaskarin eta bihurria da. Beti alai! Beti
ipuin kontari! Bere maleta bitxiarekin azaltzen da
edonora doala, eta bertatik ipuinak kontatzeko
hainbat gauza ateratzen ditu, luma bat, untxi bat...
Maletarik gabe ezin da bizi... bere bihurrikerien
artean gustukoena, bisitatzen duen leku bakoitzetik
zerbait eramatea da.






EUSKAL MITOLOGIA. HAURRENTZAKO IPUINAK 6-7 URTE.

Belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho guregana iritsi dira mitoak, ipuinak eta pertsonai bitxiak. Normalean helduentzat kontatuak orain haurrentzat egokituak aurkezten dira. Marrazki eragarkarriak, hizkuntza moldatuak eta istorio interesgarriak izango dira bilduma honetan 3 eta 7 urte arteko hurrek eta helduek aurkituko dituztenak.



BEÑATEN ESKUTITZAK 8-10 URTE

Gure barruan dabilzan kontu tikiak handitu ez daitezzen, hobe izaten da nolabait kanporatzea. Arazotxo eta kezka horiekin deseroso sentitzen gara askotan, eta ez dugu jakiten zer egin, arduratzen gaituzten buruhauste horietatik askatzeko eta libre sentitzeko. Beñatek bere kontutxo horiek guztiak idaztea pentsatu du, eta gutunak idazten hasi da. Eta nahi gabe, jolas polita asmatu du. Zergatik ez zara zeu ere eskutitzak idaztera animatzen zure inguruko lagunei?




PUZKERTIN 10 -12 URTE

Peru eta Marixe bikote maitemindu bat dira. Peruk, gauetan, puzker galantak botatzen ditu ohean. Marixe, hotzak egoten denez, galtzerdi eta guzti sartzen da ohean, eta ohe barruan kentzen ditu. Gau batean, Peruren puzker bat Marixeren galtzetin baten barruan sartu zen, eta elkartze horretatik izaki harrigarri bat sortu zen: Puzkertin. Umorez eta fantasiaz beteriko abentura.




UDABERRIAREN BILA (6-8 URTE)

Matilde printzesa eta Karamelu pottokaren abenturak biltzen dituen bilduma. Ilustrazio goxoak bezain originalak, eranskailu koloretsu eta distiratsuekin. Trosterriko Erresumako biztanleak oso kezkatuta daude: negua gehiegi luzatzen ari da, eta udaberria berandu dator. Orduan, Matilde printzesak ideia bat izango du: Karamelu pottokarekin batera eta maitagarrien laguntzarekin, Udaberriaren bila joango da...



AITA OKER DAGO (8-10URTE)

Askotariko ipuinak biltzen ditu liburu honek. Zortzi dira guztira, baina lehenengoa, liburuari izenburua ematen diona, labur-laburra da eta atariko soiltzat har daiteke. Umeak helduen okerreko uste eta jokabideen lekuko dira kontakizun ia guztietan. Kasu askotan, sarrerako ipuinean bezala, aita da oker dagoena.



RITA EZ DAGO EZTEI EZTITARAKO (10-12 URTE)

Rita txikitatik egon da Roberto bere lehengusuarekin maiteminduta. Ritak gutun bat jaso berri du Robertoren ezkontzara gonbidatuz. Rita asko haserretu da albistea ezagutzearan eta ahaleginduko da nola edo hala ezkontza zapuzten.

bitxikeriak




Jirafa mutua da!!! Ez du aho kordarik.



Bale urdin baten mingainak, elefante nagusi baten beste pisu dauka.



Hipopotamo batek pertsona batek baino azkarrago egiten du korrika.




Moskito batek 42 hagin ditu.



Trikuek dena horia ikusten dute.



Amazonas ibaia itsasoan eragin gehien duen ibaia da, itsasoan 180 km barneratzen da ur gezaz.



Laku berezia... Bosumtwi lakua Ghanan, meteorito batek sortu baitzuen.



Hurrek 300 hezur dituzte, helduek 206.



Edaten dugun uraren erdia, arnasketan kanporatzen dugu gizakiok.



Gizonezkoek 15.000 hitz erabiltzen dituzte eguneko, emakumezkoek 30.000.



1.200 miloi pertsonen artean bakarra bizi omen da 116 urte edo urte gehiago.



Hatz markak bakarrak diren moduan mingain bakoitza ere bakarra da.

ANDRES PIRATA

Bazen behin Andres izeneko pirata. Berari asko gustatzen zitzaion altxorak aurkitzea bere tripulazioarekin: Pini, Pon, Lon, Txon, Frun eta Lupun. Beti Piraten Tabernan elkartzen ziren.

Hor pirata guztiak ziren maltzurak, beraiek izan ezik, batez ere Bizar Beltz. Bizar Beltz altxorak lapurtzen egoten zen.

Baina egun batean, Andres Pirata eta Lon hondartzatik paseatzen ari zirela, Lonek altxor baten mapa zapaldu zuen:



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...




- Kapitaina! Kapitaina! Altxor baten mapa aurkitu dut!- esan zuen Lonek.

- Oso ondo, Lon, utzidazu ikusten- esan zuen Andresek – Altxorra aurkitzeko Margarita uhartera joan behar dugu. Ipar-ekialdetik sartu eta hondartzan kokatu. Hondartzaren ondoan ibai bat dago.

Jarraitu ibaiari eta urjauzi bat ikusiko dugu. Urjauziaren ondoan arkaitz itzel bat. Hori mugitu eta azpian dago altxorra – azaldu zuen Andresek.

Tripulazio osoa elkartu zen eta martxan jarri ziren. Baina Bizar Beltzek dena entzun zuenez, bera ere martxan jarri zen. Baina ez zekien Ipar-ekialdea zer zen eta Hego-mendebaldetik sartu zen. Orduan Andres Pirata eta bere tripulazioa askoz lehenago heldu ziren.

Altxorrean urrezko 700 txanpon zeuden. Diruarekin itsasontzi berri bat erosi zuten eta Bizar Beltz bere itsasontzi itsusiarekin gelditu zen.



zu margolari!